



3.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

Atal honetan honako alderdi hauek jaso dira: Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) 2021-2024 epealdirako nazioarteko ekonomiari buruz egin dituen aurreikuspenak, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak datorren urterako prestatutako egoera makroekonomikoa, Eusko Jaurlaritzak egin dituen aurreikuspenak, eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren ekitaldiko sarreren aurreikuspena egiteko Gipuzkoako ekonomian kontuan hartu dituen aldagaiak.

3.1.- Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

3.1.1. taula.- NDF: Nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenak

Cuadro 3.1.1.- FMI: Previsiones económicas internacionales

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2021	2022	2023	2024
BPG (Bolumen %-aren Δ) / PIB (Δ % volumen)				
Mundu osoa / Total mundial	6,3	3,5	3,0	3,0
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	5,4	2,7	1,5	1,4
Estatu Batuak / Estados Unidos	5,9	2,1	1,8	1,0
Japonia / Japón	2,2	1,0	1,4	1,0
Erresuma Batua / Reino Unido	7,6	4,1	0,4	1,0
Eurogunea / Zona euro	5,3	3,5	0,9	1,5
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak/Países en desarrollo y mercados emergentes	6,8	4,0	4,0	4,1
KONTSUMO PREZIOAK / PRECIOS CONSUMO (Δ %)				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	3,1	7,3	4,7	2,8
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak /Países en desarrollo y mercados emergentes	5,9	9,8	8,3	6,8
MUNDUKO MERKATARITZA (bolumen %-aren Δ)	10,7	5,2	2,0	3,7
COMERCIO MUNDIAL (Δ % volumen)				

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (NDF).

Fuente: Fondo Monetario Internacional (FMI).

Munduko hazkundera 2022rako zenbatetsitako % 3,5etik 2023ko eta 2024ko % 3,0raino txikitzea proiektatzen da. Munduko ekonomiaren aukeren (WEO txostena) 2023ko edizioan aurreikusitakoa baino zertxobait hobea da 2023rako iragarpena, baina ahula izaten jarraitzen du, ikuspegi historikotik begiratuta. Inflazioari aurre egiteko banku zentralen moneta politika interes tasak igotzea izan da, eta politika horrek jarduera

3.- PREVISIONES ECONÓMICAS

En este apartado se recogen las previsiones económicas internacionales para el periodo 2021-2024 realizadas por el Fondo Monetario Internacional, el escenario macroeconómico para el próximo año elaborado por el Ministerio español de Economía y Hacienda, las previsiones del Gobierno Vasco y las variables de la economía del Territorio Histórico que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido en cuenta para la previsión de sus ingresos en el próximo ejercicio.

3.1.- FMI

Se proyecta que el crecimiento mundial disminuya de un 3,5% estimado para 2022 a 3,0% en 2023 y 2024. Si bien el pronóstico para 2023 es levemente más alto de lo previsto en la edición de abril de 2023 de Perspectivas de la economía mundial (informe WEO), sigue siendo débil desde una perspectiva histórica. La subida de las tasas de interés de política monetaria de los bancos centrales para combatir la inflación sigue lastrando la



ekonomikoa oztopatzen jarraitzen du. Aurreikusten da munduko inflazioak behera egitea 2022ko % 8,7tik % 6,8ra 2023an, eta % 5,2ra 2024an, eta azpiko inflazioa (oinarrikoa) modu mailakatuagoan txikiagotzea; 2024ko inflazioaren iragarpenak goitik berrikusi dira.

Finantza sektorea berehala asaldatzeko arriskuak apaldu egin ziren AEBko zorraren muga igotzeko azken akordioaren ostean eta agintariak urte hasieran neurri irmoak hartu ostean, AEBko eta Suitzako banku istiluak gelditzeko. Horren ondorioz, etorkizunerako kontrako arriskuak neurritsuagoak dira. Hala eta guztiz ere, zer arrisku dauden ikusita, mundu mailako hazkundera txikia izango dela dirudi. Inflazioak handia izaten jarraitu dezake, edo handitu ere egin daiteke, shock berririk sortzen bada; esate baterako, Ukrainako gerra gaitzotzearen ondorioz eta muturreko gertaera meteorologikoen ondorioz. Horrelako talkek moneta politika murriztaileagoa izatea ekarriko lukete. Finantza sektorea berriz nahas daiteke, banku zentralak politikak gogortzen badituzte merkatuak egokitzen diren bitartean. Txinaren susperraldia desazelera daiteke, konpondu ez diren higiezinen arazoengatik neurri batean, kutsatze efektu negatiboak baitakartzate mugaz gaindi. Gehiegizko zor subiranoak ekarritako tentsioak ekonomia gehiagotara heda daitezke. Bestalde, positiboa da inflazioa uste baino azkarrago murriztu daitekeela, eta, ondorioz, moneta politika murriztailea ez litzateke hain beharrezkoa izango. Halaber, gerta daiteke barneko eskaerak erakustea erresilienteagoa izateko gauza dela.

Ekonomia gehienetan, lehenasuna da, oraindik ere, desinflazioa jarraitua izatea, finantza egonkortasuna ziurtatzeko aldi berean. Beraz, banku zentralen jomuga prezioen egonkortasuna berreskuratzea eta finantza ikuskaritza zein arriskuen zaintza indartzea izan behar da. Merkatuetan tentsioak gauzatzen badira azkenean, herrialdeek likidezia eman behar dute berandu baino lehen, eta, aldi berean, arrisku moral posiblea arindu. Zerga erreserbak eratu beharko litzukete, eta ziurtatu zerga doikuntzaren konposizioak zaurgarrienak babesten dituela. Ekonomiaren eskaintza hobetzen bada, zerga baterakuntza erraztuko da eta inflazioa leunkiago jaits dadin lagunduko, xedetzat finkatu diren mailetarantz.

actividad económica. Se prevé que el nivel general de inflación mundial descienda de 8,7% en 2022 a 6,8% en 2023 y 5,2% en 2024 y que la inflación subyacente (básica) disminuya de forma más gradual, habiéndose revisado al alza los pronósticos para la inflación en 2024.

El reciente acuerdo para elevar el techo de la deuda de Estados Unidos y las firmes medidas adoptadas a principios de este año por las autoridades para contener la turbulencia bancaria en Estados Unidos y Suiza redujeron los riesgos inmediatos de trastornos en el sector financiero. Esto moderó los riesgos adversos para las perspectivas. No obstante, considerando los riesgos existentes, la perspectiva del crecimiento mundial se inclina a la baja. La inflación podría seguir siendo elevada e incluso aumentar si se producen nuevos shocks, como los derivados de un recrudecimiento de la guerra en Ucrania y eventos meteorológicos extremos, que inducirían una política monetaria más restrictiva. La turbulencia en el sector financiero podría retornar conforme los mercados se adaptan al nuevo endurecimiento de la política por parte de los bancos centrales. La recuperación de China podría desacelerarse, en parte debido a los problemas inmobiliarios no resueltos, que acarrearán efectos de contagio transfronterizo negativos. Las tensiones por sobreendeudamiento soberano podrían propagarse a un grupo más amplio de economías. Por el lado positivo, la inflación podría disminuir más rápidamente de lo previsto, reduciendo así la necesidad de una política monetaria restrictiva, y la demanda interna podría otra vez demostrar ser más resiliente.

En la mayoría de las economías, la prioridad sigue siendo lograr una desinflación sostenida garantizando a la vez la estabilidad financiera. Por lo tanto, los bancos centrales deben mantener su atención centrada en restaurar la estabilidad de precios y reforzar la supervisión financiera y la vigilancia de los riesgos. De materializarse las tensiones en los mercados, los países deberían proporcionar liquidez sin demora y a la vez mitigar el posible riesgo moral. También deberían constituir reservas fiscales, y cerciorarse de que la composición del ajuste fiscal dirija el apoyo hacia los más vulnerables. Al mejorar el lado de la oferta de la economía se facilitaría la consolidación fiscal y se propiciaría un descenso más suave de la inflación hacia los niveles fijados como meta.



3.2.- ESPAINIAKO ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA 2022-2024 EPEALDIRAKO

Hurrengo hilabeteetan, desinflazio prozesuak eta moneta politikaren bilakaerak Espainiako ekonomiaren nondik norakoak baldintzatuko dituzte. Hortaz, bi kasuetako aurreikuspenen hipotesiak argi adierazi behar dira. Hasteko, inflazioaren faktore exogenoek neurriira ekartzeko bidean jarraituko dute, energiaren eta nekazaritzako lehengaien prezioak egonkortzearekin batera, eta, halaber, funtsezko horniduren botila lepoak desagertzearekin batera (adibidez, erdieroaleena). Bestalde, Europako Banku Zentralak (EBZ) aurreratu duenaren ildo beretik, eskaera ahultzeko testuinguruak enpresen marjinen inflazio presioa txikiagoa izaten lagunduko du, pandemiaren aurreko mailetan baitaude dagoeneko (batezbestekoa eta produktu unitateko). Hori guztia lagungarria izan beharko litzateke soldaten erosahalmena lehengoratzeko hurrengo ekitalditik aurrera, baina bigarren txandako efektu handirik eragin gabe. Hau da, soldaten marjinetaranzko iguera ez litzateke begizta orokor bihurtuko.

Bigarrenik, kontuan izanik EBZ kezkatuta dagoela azpiko inflazioa handia delako euroguneko herrialde gehienetan, iragarpenen abiapuntuko hipotesia da interes tasak beste bi bider igoko direla, gordailutze erraztasuna % 4 ere izateko irailen. Interes tasek horrela jarraituko dute 2024ko bigarren sei hilekora arte, gutxienez; alegia, harik eta EBZk desinflazio prozesua sendotu dela ikusten duen arte.

Suposizio horietatik abiatutik, azken aldian ikusi diren ahultze seinaleak areagotuko dira epe laburrera, moneta murrizketako zikloaren eraginez. Era horretan, hazkundera moteldu egingo da urtearen bigarren zatian. Alabaina, susperraldi ekonomikoa apurka etorriko da aurrerago, interes tasak egonkortu eta soldata errealak zertxobait hobetzen direnean (errenten itunen ondorioz).

Hala eta guztiz ere, nahiz eta hoztea espero den, urte hasiera biziak BPGa % 2,2 igotzea ekarriko du 2023 osorako; hots, aurreko iragarpena baino zazpi hamarren gehiago. Berrikuspen horretan ia erabat islatzen da EINK aurreko ekitaldiko

3.2.- CUADRO MACROECONÓMICO DEL ESTADO ESPAÑOL PARA EL PERIODO 2022-2024

Para los próximos meses, la marcha de la economía española estará condicionada por el proceso de desinflación y la evolución de la política monetaria, y por tanto conviene explicitar las hipótesis que sustentan las previsiones en ambos casos. En primer lugar, los factores exógenos de inflación mantendrán una senda de moderación, en consonancia con la estabilización de los precios energéticos y de las materias primas agrícolas, y la desaparición de cuellos de botella de suministros clave como los semiconductores. Por otra parte, en línea con lo anticipado por el BCE, el contexto de debilitamiento de la demanda es propicio a una menor presión inflacionaria de los márgenes empresariales, situados ya por encima de los niveles pre-pandemia (en términos medios y por unidad de producto). Todo ello debería favorecer una ligera recuperación del poder adquisitivo de los salarios a partir del próximo ejercicio, pero sin generar importantes efectos de segunda ronda. Es decir, no se produciría un bucle generalizado de las alzas salariales hacia los márgenes.

En segundo lugar, habida cuenta de la preocupación del BCE acerca de la elevada inflación subyacente en la mayoría de países de la zona euro, las previsiones parten de la hipótesis de dos subidas adicionales de tipos de interés, llevando la facilidad de depósitos hasta el 4% en el mes de septiembre. Los tipos de interés se mantendrían en ese nivel al menos hasta el segundo semestre de 2024, es decir hasta que el BCE considere que el proceso de desinflación se ha afianzado.

Partiendo de estos supuestos, nos asomamos a corto plazo a una agudización de las señales de debilitamiento percibidas en fechas recientes como consecuencia del ciclo de restricción monetaria, de modo que el crecimiento registrará una ralentización durante la segunda parte del año. Más allá, sin embargo, la estabilización de los tipos de interés, junto con la ligera mejora de los salarios reales –fruto de los acuerdos de rentas— darán pie a una recuperación económica gradual.

Con todo, pese al enfriamiento esperado, el fuerte inicio de año dejará el crecimiento del PIB en un 2,2% para el conjunto del 2023, siete décimas más que la anterior previsión. Esta revisión refleja casi por completo el efecto arrastre que proviene del



laugarren hiruhilekoaren hazkundera goitik doitu izanaren herrestatze efektua, eta lehenengo hiruhilekoan uste baino portaera hobea suertatu izanak ere eragina izan du (aurreko iragarpena egin zenean, ez zegoen doikuntza horien berririk).

Hazkunderaren jatorria kanpoaldea izango da nagusiki, % 1,6ko ekarpenarekin. Turismoaren dinamismoak eragingo du hori, baina baita beste alderdi batzuek ere: merkatu kuotak irabaziko dira salgaien eta turistikoak ez diren zerbitzuen trukeetan, Espainiako enpresek posizionamendu lehiakor ona dutelako hornidura kate globalak laburtzen ari diren testuinguru honetan.

Kanpoko sektorearen emaitza onek barneko eskaeraren ahultasuna orekatuko dute, barneko ekarpena BPGan 0,6 puntukoa besterik ez baita izango. Iragarpen horren azalpena da kontsumo pribatua gelditu egin dela, etxeek erosahalmena galtzeak oztopatzen duelako, eta familia guztiek ezin dutelako aurrezkiak erabiltzen jarraitu gastua finantzatzeko. Bestalde, kontsumo publikoa neurrizko erritmoan areagotuko da, agregatu horren duela gutxiko bilakaerarekin bat etorritz. Inbertsioaren portaera apur bat dinamikoagoa izango da, Europako funtsen bultzadari esker. Dena den, indarra galduko du urtean zehar, kreditua garestitzeagatik.

Labur esanda, moneta politikaren inpaktuak uzurtzea eragiten du, eta nabarmenago sumatuko da ekitaldiaren bigarren zatian.

Moteltzea 2024ra arte helduko da, eta, beraz, hazkundera % 1,6raino desazeleratuko da, baina hiruhilekoen profila behetik gora joango da. Ekarpene nagusia barneko eskaerarena izango da, zeren etxeek erosahalmene hobea edukitzea espero baita, desinflazioagatik eta soldaten itunagatik. Aurreikuspen aldiaren amaieran, interes tasen igoera etengo da eta esportazioen efektu atzeratua nabarrituko da, eta hori guztia inbertsioaren pizgarri izango da. Kontsumo publikoaren ibilbidea ez da asko aldatuko, hurrengo ekitaldiko zerga politikari buruzko argibideen zain. Kanpoko sektorearen jarduerak berean jarraituko du, baina 2023an baino neurri txikiagoan, turismoaren normalizazioaren inpaktua agortuko da eta.

ajuste al alza por parte del INE del crecimiento en el cuarto trimestre del pasado ejercicio, y del mejor comportamiento de lo previsto en el primer trimestre (unos ajustes que no se habían dado a conocer en el momento de la anterior previsión).

El crecimiento procederá principalmente del sector exterior, con una aportación de 1,6 puntos porcentuales, fruto del dinamismo del turismo, pero no solo: también se ganarán cuotas de mercado en los intercambios de mercancías y de servicios no turísticos, gracias al buen posicionamiento competitivo de las empresas españolas en un contexto de acortamiento de las cadenas globales de suministro.

Los buenos resultados cosechados por el sector exterior compensarán la debilidad de la demanda interna, cuya aportación al PIB será de apenas 0,6 puntos. Esta previsión se explica por el estancamiento del consumo privado, lastrado por la pérdida de capacidad de compra de los hogares y ante la imposibilidad para muchas familias de seguir tirando del ahorro para financiar el gasto. El consumo público, por su parte, se incrementará a un ritmo moderado en consonancia con la evolución reciente de este agregado. La inversión tendrá un comportamiento ligeramente más dinámico gracias al impulso de los fondos europeos, si bien perderá fuerza en el transcurso del año como consecuencia del encarecimiento del crédito.

En suma, el impacto contractivo de la política monetaria se percibirá con más contundencia en la segunda parte del ejercicio.

Esta ralentización se trasladará a 2024, motivando una desaceleración del crecimiento para ese año hasta el 1,6%, si bien con un perfil trimestral que irá de menos a más. La principal contribución procederá de la demanda interna, gracias a la ligera recuperación del poder adquisitivo de los hogares que se espera como consecuencia de la desinflación y del acuerdo salarial. La pausa en la subida de tipos de interés, junto con el efecto rezagado de las exportaciones, también aportarán un estímulo a la inversión al final del periodo de previsión. La trayectoria del consumo público se mantendrá sin grandes cambios, a falta de más indicaciones acerca de la política fiscal en el próximo ejercicio. El sector exterior, por su parte, seguirá aportando actividad, aunque menos que en 2023 por el agotamiento del impacto de la normalización del turismo.



Energiaren prezioak jaitea lagungarria izango da inflazioa apaltzeko, nahiz eta EBZren xedea baino handiagoa izango den aurreikuspenaldi osoan. Familien kontsumoaren deflatoarea % 4,1 areagotuko da aurten (aurreko aurreikuspenean baino bi hamarren gutxiago), eta hurrengoan, % 3,4 (aldaketarik ez). BPGaren deflatoareak barneko prezioen presioa neurtzen du, inportaturiko kostuak kenduz, alegia. Deflatoare hori sendoago igoko da: % 4,7 2023an; 2024an, aldiz, % 3,4raino jaitsiko da. Neurriak ekartzeko joera horrek erakusten du enpresen marjinak gutxika mugatzen doazela, eta horrek erraztuko du soldatak zertxobait suspertzea 2024an.

Ondasunen eta zerbitzuen esportazio gordinen indarra eta inportazioak merkatzearen ondoriozko truke erlazio erreala hobetzea mesedegarriak izango dira kanpoko superabita nabarmen handitzeko. Kontu korronteko balantzaren soberakina % 2,5 baino handiagoa izango da aurreikuspenaldi osoan; 2022an % 0,5 izan zen, ordea. Kanpoko balantza osoari dagokionez, Europako funtsen kontzeptupean dauden transferentziak eta kontu korronteko balantza batu behar dira, eta are positiboagoa denez, kanpoaldearekiko zorra kitatzea azeleratzen da.

Kanpoko superabitarekin batera, lan merkatua Espainiako ekonomiaren erresistentzia faktore nagusietako bat izango da. Langabezia tasa % 11,6raino murriztuko da 2024an, baina, hala ere, Europako batezbestekoa halako bi da.

Aurrekontuen desorekak zuzentzea oztopatuko dute ekonomiaren moteltzeak, inflazioaren kontrako neurriek, pentsioen indizazioak eta interes tasen igoeraren ondoriozko finantza karga handiagoak. Doikuntzarik ezean, defizita % 3,7 izango da 2024an, eta zor publikoak % 108 gaindituko du; hau da, pandemiaren aurretik baino 10 puntu gehiago.

Gogora ekarri behar da Espainiako ekonomiaren portaera analista gehienek aurreikusitakoa baino hobea izaten ari dela. Nolabaiteko erresiliencia hori azaldu daiteke sektore esportatzailea lehiakorra delako, higiezinaren burbuilarik ez dagoelako (Europako beste herrialde batzuetan hori da-eta mehatxua) eta etxeen zorra txikia delako. Hurrengo hilabeteetan, baliteke faktore horiek gora egitea, ustekabea.

El descenso de los precios energéticos ayudará a moderar la inflación, si bien ésta se mantendrá en cotas superiores al objetivo del BCE durante todo el periodo de previsión. El deflactor del consumo de las familias se incrementará un 4,1% este año (dos décimas menos que en la anterior previsión), y 3,4% el que viene (sin cambios). El deflactor del PIB —que mide la presión de los precios internos, es decir descontando los costes importados— subirá con más vigor, un 4,7% en 2023, y se frenará hasta el 3,4% en 2024. Esta tendencia a la moderación refleja la progresiva contención de los márgenes empresariales, algo que facilitará una leve recuperación de los salarios en 2024.

El tirón de las exportaciones netas de bienes y servicios, junto con la mejora de la relación real de intercambio generada por el abaratamiento de las importaciones, redundará en un importante incremento del superávit externo. La balanza por cuenta corriente arrojará un excedente superior al 2,5% durante todo el periodo de previsión, frente al 0,5% registrado en 2022. El resultado en términos de balanza externa total, que se obtiene sumando las transferencias en concepto de los fondos europeos a la balanza por cuenta corriente, es aún más positivo, acelerando el desendeudamiento frente al exterior.

Junto con el superávit externo, el mercado laboral se mantendrá como uno de los principales factores de resistencia de la economía española. La tasa de paro se reducirá hasta el 11,6% en 2024, un nivel que todavía duplica la media europea.

La ralentización de la economía, junto con las medidas de lucha contra la inflación, la indiciación de las pensiones y el incremento de las cargas financieras generado por la subida de los tipos de interés, dificultarán la corrección de los desequilibrios presupuestarios. A falta de ajustes, el déficit se situará en el 3,7% en 2024 y la deuda pública superará el 108%, es decir, 10 puntos más que antes de la pandemia.

Cabe recordar que la economía española está teniendo un comportamiento mejor de lo anticipado por la mayoría de analistas. Esta relativa resiliencia podría explicarse por la competitividad del sector exportador, la ausencia de una burbuja inmobiliaria (a la inversa de la amenaza que planea sobre otros países europeos) y el nivel reducido de deuda de los hogares, factores que todavía podrían sorprender al alza en los próximos meses.



Baina beste arrisku batzuk behetik doaz; bereziki, interes tasen igoeren inpaktuari dagokionez. Lehenik eta behin, doikuntzak espero baino gogorragoak izan daitezke inflazioaren presioek eusten badiote, eta ezin da hori baztertu, euroguneko ekonomietako batzuetan ia enplegu beteak baitago. Aurreikuspen horietan adierazten dena baino finantza kostu garestiagoak etortzen badira, sektorerik zaugarriek ez ordaintzeko arrisku handiagoa sortu daiteke. Bestalde, EBZk ohartarazi du itzalpeko finantzak zaugarriak direla eta horrek ondorioak izan ditzakeela Europako ekonomian: ezegonkortasun arrisku bat da, monetaren joan-etorri bakoitzarekin areagotzen dena.

Azkenik, defizit publiko handiak berean jarraitzea zaugarritasun faktore bat da Espainiako ekonomiarako, batik bat testuingurua aintzakotzat hartzen bada: Europako zerga arauak berraktibatu dira eta banku zentrala babesa kentzen ari da, nola tasei hala zorra erosteari dagokionez, batez ere aurtun, zor publikoaren jaulkipen gehiago egingo dira eta. Halaber, errentagarritasunak areagotuko dira. Azken urteotan, 10 urterako tituluen tasa % 1 baino txikiagoa izan da, eta orain, berriz, % 3,5 inguru dabil. Beraz, interes gehiago ordainduko dira BPGari begira. Doikuntza neurririk hartzen ez bada, ez dago ziurtatuta BPGarekin lotuta dagoen zorrak beherantz jarraituko duenik 2025etik aurrera. Oraingoan, arrisku primak egonkor jarraitzen du, baina finantza merkatuetan perturbazioak gertatzen badira, egoera goitik behera alda daiteke.

Otros riesgos, sin embargo, son a la baja, en particular en lo que atañe al impacto de las subidas de tipos de interés. En primer lugar, los ajustes podrían ser más abruptos de lo esperado si las presiones inflacionarias se mantienen, algo que no es descartable habida cuenta de la situación de cuasi pleno empleo de algunas economías de la zona euro. Un encarecimiento de los costes financieros más pronunciado de lo que incorporan estas previsiones plantearía un riesgo mayor de impago para los sectores más vulnerables. Por otra parte, el BCE ha alertado de las vulnerabilidades de las finanzas en la sombra y de sus posibles consecuencias para la economía europea –un riesgo de inestabilidad que se agudiza con cada vuelta de tuerca monetaria--.

Finalmente, la persistencia de un déficit público elevado es un factor de vulnerabilidad para la economía española, en un contexto de reactivación de las reglas fiscales europeas y de retirada del apoyo del banco central, tanto en materia de tipos como de compra de deuda, especialmente cuando este año se prevé aumentar las emisiones de deuda pública. A esto se suma el aumento de las rentabilidades, desde tasas inferiores al 1% en los últimos años para los títulos a 10 años hasta el entorno del 3,5%, lo que va a suponer un aumento del pago de intereses en relación al PIB. En ausencia de medidas de ajuste, no está garantizado que la deuda en relación al PIB vaya a seguir una senda descendente a partir de 2025. De momento la prima de riesgo se mantiene estable, pero ante posibles perturbaciones en los mercados financieros, la situación podría cambiar drásticamente.



3.2.1. taula.- Estatuko proiektzio makroekonomikoak
Cuadro 3.2.1.- Proyecciones Macroeconómicas del Estado

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2022	2023	2024
<u>BPG ETA GEHITUAK (BENETAKO %-ren Δ) / PIB Y AGREGADOS (Δ % REAL)</u>			
Familien amaierako kontsumoaren gastua / Gasto en consumo final hogares (1)	4,4	2,1	3,0
Amaierako kontsumo publikoaren gastua / Gasto en consumo final público	-0,7	1,9	0,9
Kapital eraketa gordina / Formación Bruta Capital	4,6	0,9	5,0
Barne eskaria/ Demanda interna	3,1	1,7	2,9
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa / Exportación de Bienes y Servicios	14,4	1,5	2,5
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa / Importación de Bienes y Servicios	7,9	0,7	3,9
Kanpoko saldoa/ Saldo exterior (2)	2,4	0,4	-0,5
Barne produktu gordina / Producto Interior Bruto	5,5	2,1	2,4
<u>PREZIOAK ETA KOSTUAK (Δ %) / PRECIOS Y COSTES (Δ %)</u>			
BPGaren deflatoarea / Deflactor del PIB	4,3	4,0	3,5
<u>LAN MERKATUA / MERCADO DE TRABAJO</u>			
Enplegua, guztira (bariaz. %tan) / Empleo Total (variac. en %)	3,8	2,1	2,3
Langabezia (biztanleria aktiboaren %) / Paro (% de la población activa)	12,9	12,2	10,9

(1) Etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak sartzen dira / Incluye las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares

(2) BPGaren hazkunderako laguntza / Contribución al crecimiento del PIB.

3.3.- EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak euskal ekonomiarako aurkeztutako eszenario makroekonomikoak hainbat egoera hartzen ditu oinarri gisa: munduko ekonomiaren bilakaera, euroak dolarraren aldean duen kanbio tasa, deflaktoreak, eta Europako Banku Zentralak aurreikuspenetan aztertutako epealdirako ezartzen dituen interes tasak.

3.3.- GOBIERNO VASCO

El escenario macroeconómico de la economía vasca presentado por la Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco se basa en unos supuestos relativos a la evolución económica mundial, al tipo de cambio del euro frente al dólar, a los deflatores y a los tipos de interés que establezca el Banco Central Europeo para el horizonte temporal contemplado en las previsiones.



3.3.1. taula.- EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK
Cuadro 3.3.1.- PREVISIONES PARA LA ECONOMÍA VASCA

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2023	2024
BPG / PIB	1,7	2,1
Azken kontsumoa / Consumo final	1,8	1,7
Kontsumo pribatua / Consumo privado	1,8	1,7
Kontsumo publikoa / Consumo público	1,6	1,5
Kapital eraketa gordina / Formación bruta de capital	2,7	4,2
Barne eskariaren ekarpena / Aportación demanda interna	2,1	2,4
Kanpo saldoaren ekarpena / Aportación saldo exterior	-0,3	-0,3
BPGaren deflatorea / Deflactor PIB	3,6	2,9
Enplegua / Empleo	0,7	0,8
Langabezia tasa / Tasa de paro	7,7	7,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco.

EAEko ekonomia ez dago Europako ekonomiek bizi duten moteltzeko-prozesutik kanpo, eta 2023ko bigarren hiruhilekoan hazkunde erritmoa moteldu egin du, %1,5era arte, aurreko datua baino zortzi hamarren gutxiago eta 2022ko hiruhileko berean baino bost puntu gutxiago. Hala ere, bigarren hiruhilekoko hazkundera Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekainean egindako aurreikuspena (%1,3) baino zertxobait handiagoa da, eta inguruko ekonomien emaitzak nabarmen gainditzen ditu. Horregatik, aurtengo hazkunde aurreikuspena %1,7koa da orain, eta ekainean, berriz, %1,6koa zen. 2024. urteari dagokionez, aurreikuspena %2,1ean mantentzen da, nahiz eta osieran zenbait aldaketa gertatzen diren, kanpoko eskaria ahultzeko igurikimenen ondorioz, nahiz eta efektu hori kontsumoaren eta inbertsioaren bultzadak konpentsatzea espero den. Hiruhileko terminoetan, 2024ko lehen bi hiruhilekoek 2022ko hirugarren hiruhilekoan hasitako joerarekin jarraituko dutela aurreikusten da. Joera hori prezioen shockak eragindako hazkunderaren moteltze batek markatzen du. Shock hori pandemiaren ondoren ekonomia berriz ireki ondoren hasi zen, eta Errusiak Ukraina inbaditu izanak eragindako krisi energetikoarekin larriagotu zen. Urte horren bigarren erdian, agertokiak hazkunde handiagoa aurreikusten du, prezioen egonkortzearen, moneta politika ez hain murriztailearen eta barne-eskariaren suspertzearen ondorioz.

Eskariaren ikuspegitik, egungo egoerak aurreikusten du azken kontsumoko gastuaren hazkundera hiru hamarren hobetuko dela aurreko aurreikuspenekin alderatuta, eta orain urte arteko

La economía vasca no es ajena al proceso de desaceleración que viven las economías europeas y en el segundo trimestre de 2023 ha moderado su ritmo de crecimiento hasta el 1,5%, ocho décimas por debajo del dato anterior y cinco puntos menos que en el mismo trimestre de 2022. Sin embargo, el crecimiento del segundo trimestre está ligeramente por encima de la previsión que la Dirección de Economía y Planificación realizó en junio (1,3%) y supera ampliamente los resultados de las economías del entorno. Por ello, la previsión de crecimiento para este año es ahora del 1,7%, frente al 1,6% de junio. Respecto al año 2024, la previsión se mantiene en el 2,1%, si bien se producen ciertos cambios en su composición debido a la expectativa de debilitamiento de la demanda externa, aunque se espera que este efecto se compense por el empuje del consumo y la inversión. En términos trimestrales, se anticipa que los dos primeros trimestres del 2024 continúen con la tendencia iniciada en el tercer trimestre de 2022, marcada por una ralentización del crecimiento causada por el shock de precios que se inició tras la reapertura de la economía después de la pandemia y que se agravó con la crisis energética provocada por la invasión rusa de Ucrania. En la segunda mitad de ese año, el escenario prevé un mayor crecimiento, fruto de la estabilización de precios, una política monetaria menos restrictiva y la reactivación de la demanda interna.

Desde el punto de vista de la demanda, el escenario actual prevé que el incremento en el gasto en consumo final mejorará en tres décimas respecto a las anteriores previsiones, situándose ahora en un



%1,8ko hazkundera izango duela, BPGaren hazkundera baino hamarren bat handiagoa. Hobekuntza hori familien kontsumoan nabarmenduko da bereziki, haien moderazio erritmoa hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa dela baitirudi. 2024an, azken kontsumoko eta etxetako gastuaren hazkundera %1,7 handituko dela kalkulatu da, enplegu garbiaren sorreraren eta soldata-igoera nabarmenen ondorioz; izan ere, horiek erosalmenari eusten lagunduko baitute.

Kapital eraketa gordina (%2,7ko hazkundera 2023an eta %4,2koa 2024an) izango da barne eskaria BPGaren hazkunderaren gaitetik jarriko duen trazio osagaia biurtekoan zehar. Esportazioen hazkundera termino errealetan mugatuta geratuko da Euskadiko aliatu komertzial nagusien nazioarteko testuinguru zailagatik, eta inportazioak, berriz, neurri handiagoan handituko dira, nahiz eta serie historikoarekiko hazkunde tasa baxuen mende ere egon, termino garbieran kanpo eskariak BPGaren hazkunderari ekarpen negatiboa eginez.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren sektorerako aurreikuspenak hazkunde ahula izaten jarraitzen du, 2023ko bigarren hiruhilekoko datu txarra berretsi ondoren. Hala ere, aurtengo bigarren erdiko joera lehenengoa baino positiboagoa izango dela kalkulatu da, hirugarren hiruhilekoan %2,6ko aldakuntza tasak eta laugarrenean %1,5ekoak izango baitira, eta urteko batez besteko hazkundera %1,2ra igoko da. Joera positibo hori datorren urtera arte luzatuko da. Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, aurreikusita dago urtearen amaieran jarduera murriztea Euriborraren hazkunde bat-batekoaren ondorioz; 2024an, berriz, goranzko bideari eustea espero da, batez ere urtearen azken zatian, interes tasen lehen jaitsierekin eta inbertsioen ekarpenarekin, horrela urteko %2,2ko igoerara iritsiz. Zerbitzuek jarraituko dute hazkunderaren buru izaten eskaintzaren ikuspegitik, %2,0ko hazkunderarekin aurtengoa, eta 2024an %2,2ra arte hobetuko da, urtean zehar goranzko joeran.

Termino arruntetan, BPG nominala %5,4 haziko da 2023an eta %5,0 2024an, eta horrek BPGaren deflatore implizitua %3,6 handitzea ekarriko du 2023an eta %2,9, berriz, 2024an.

Lan merkatuaren bilakaerak bide

1,8% de incremento interanual, una décima por encima del crecimiento del PIB. Esta mejora se manifestará especialmente en el consumo de los hogares, cuyo ritmo de moderación parece ser menor que el inicialmente previsto. En 2024, se estima que el crecimiento del gasto en consumo final y de los hogares se vea incrementado un 1,7%, como consecuencia de la creación de empleo neto y las notables subidas de salarios, que ayudarán a mantener el poder adquisitivo.

La formación bruta de capital, con un crecimiento de un 2,7% en 2023 y un 4,2% en 2024, será el componente tractor que elevará a la demanda interior por encima del crecimiento del PIB a lo largo del bienio. El aumento de las exportaciones en términos reales quedará limitado por el difícil contexto internacional al que están sujetos los principales aliados comerciales de Euskadi, mientras que las importaciones aumentarán en mayor medida, aunque también sujetas a bajas tasas de crecimiento respecto a la serie histórica, dando lugar en términos netos a una contribución negativa de la demanda externa al incremento del PIB.

En la perspectiva de oferta, la previsión para el sector industrial continúa siendo la de un crecimiento débil tras confirmarse el mal dato del segundo trimestre de 2023. Aun así, se estima que la tendencia de la segunda mitad del año será más positiva que la primera, con tasas de variación del 2,6% en el tercer trimestre y del 1,5% en el cuarto, que elevarán el incremento medio del año hasta el 1,2%. Esta tendencia positiva se alargará al año próximo. En cuanto al sector de la construcción, está previsto que disminuya su actividad en la parte final del año a consecuencia del abrupto crecimiento del Euribor, mientras que en 2024 se espera que mantenga una senda ascendente, en especial en la última parte del año, con los primeros descensos de los tipos de interés y con el aporte procedente de inversiones, alcanzando así el 2,2% de incremento anual. Los servicios continuarán liderando el crecimiento desde el punto de vista de la oferta, con un crecimiento del 2,0% en el presente año, que mejorará hasta el 2,2% en 2024, en una tendencia ascendente a lo largo del año.

En términos corrientes, el PIB nominal crecerá un 5,4% en 2023 y un 5,0% en 2024, que supondrá un aumento del deflactor implícito del PIB del 3,6% en 2023 y del 2,9% en 2024.

La evolución del mercado de trabajo



positiboan jarraitzen du, 2023ko bigarren hiruhilekoan lanaldi osoko lanpostu baliokideen hiruhileko arteko %0,7ko hazkundearen ondoren. Hala, aurreikusten da lanaldi osoko 13.000 lanpostu garbi sortuko direla aurten, eta beste 16.000 gehiago datorren urtean, hau da, urte arteko hazkunde-tasak %1,2 izango dira 2023an eta %1,6, berriz, 2024an. Horri esker, 2023ko langabezia tasa zortzi hamarren murriztuko da aurreko urtearekin alderatuta, %7,7ra iritsi arte, eta 2024an jaisten jarraituko du, %7,0ra arte, eta urteko azken bi hiruhilekoetan %7tik beherako mailetan kokatu ahal izango da.

Aurreikuspen hauek egiteko hipotesien arabera, Euriborra %3,8ko maximoetan kokatuko da datozen hiruhilekoetan, interes tasak egonkortzearen ondorioz, eta euroak dolarraren aldean balioa irabaziko du 2023an (1,094 dolar euro bakoitzeko) eta 2024an (1,118 dolar euro bakoitzeko). Nazioarteko testuinguruak, EAeko ekonomiaren kanpo sektorearen portaera zehazteko balio duenak, Espainiako, ELGAko eta euroaren eremuko hazkunde tasetan islatzen denak, hazkunde ahuldu bat adierazten du euroaren kide diren herrialdeentzat eta ELGAko herrialdeentzat. Azkenik, kontsumo pribatuaren eta Espainiako ondasunen esportazioen deflatoreek aurreikuspenaren aldirako prezio mailaren igoera moteldu egingo dela aurreratu dute.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2023ko aurreikuspenak hobetu izana bat dator beste erakunde batzuek aurreikuspenetan egindakoekin. Hala, Ceperderen azken aurreikuspenak, Funcasenarekin batera, zenbatespen ezkorrena izaten jarraitzen du, %1,4rekin, baina maiatzeko aurreikuspena baino bost hamarren gehiagorekin. Bestalde, aurreikuspenik baikorrena BBVAk egin du, eta Euskadiko BPGaren hazkundera %2,0koa izango dela dio, hau da, zazpi hamarren igo da, erakunde horrek berak martxoan egindako aurreikuspenarekin alderatuta. 2024ko aurreikuspenei dagokienez, bai Ceperdek (%1,7) bai BBVAk (%2,6) hazkunde aurreikuspenak murriztu dituzte, eta, 2023ko aurreikuspenei dagokienez bezala, oraindik ere zabala den aurreikuspen espektroaren muturretan daude.

continúa en una senda favorable tras el crecimiento intertrimestral del 0,7% de los puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo en el segundo trimestre de 2023. Así, se prevé que se creen del orden de los 13.000 puestos de trabajo a tiempo completo netos este año y otros 16.000 más el año próximo, lo que supone tasas de crecimiento interanual del 1,2% en 2023 y 1,6% en 2024. Gracias a ello, la tasa de paro de 2023 se reducirá en ocho décimas respecto al año anterior, hasta situarse en el 7,7%, y continuará descendiendo en 2024 hasta el 7%, pudiendo situarse en los dos últimos trimestres del año en niveles inferiores al 7%.

Las hipótesis adoptadas para la realización de estas previsiones implican que el Euribor se situará en máximos del 3,8% los próximos trimestres, como consecuencia de la estabilización de los tipos de interés, y que el euro se apreciará frente al dólar tanto en 2023 (1,094 dólares por euro) como en 2024 (1,118 dólares por euro). El contexto internacional, que sirve para determinar el comportamiento del sector exterior de la economía vasca, reflejado por las tasas de crecimiento de España, la OCDE y la zona del euro, señala un crecimiento debilitado para los países miembros del euro y de la OCDE. Por último, los deflatores del consumo privado y de exportaciones de bienes de España adelantan una moderación en el incremento del nivel de precios para el periodo de previsiones.

La mejora de las previsiones de 2023 por parte de la Dirección de Economía y Planificación se encuentra alineada con las realizadas por otros organismos en sus previsiones. Así, la última previsión de Ceperde continúa siendo, junto a la de Funcas, la estimación menos optimista, con un 1,4%, pero cinco décimas por encima de su previsión de mayo. Por su parte, la previsión más optimista la realiza BBVA y sitúa el crecimiento del PIB de Euskadi en un 2,0%, lo que supone un incremento de siete décimas respecto a la previsión de marzo realizada por esa misma entidad. En cuanto a las previsiones de 2024, tanto Ceperde (1,7%) como BBVA (2,6%) han recortado sus estimaciones de crecimiento y, al igual que ocurre con las previsiones de 2023, se sitúan en los extremos de un espectro de previsiones que continúa siendo amplio.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

2024ko AURREKONTUA
PRESUPUESTO 2024

3.4.- GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Gipuzkoako ekonomiari dagokionez, 2024an inguruko ekonomien antzeko hazkundera espero da: barne produktu gordina % 2,1 inguru haziko da termino errealetan, eta % 5,0 inguru termino korronteetan.

3.4.- DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA

Por lo que se refiere a la economía guipuzcoana, en 2024 se estima un crecimiento similar al entorno, con incrementos del PIB alrededor del 2,1% en términos reales y del 5,0% medido en términos corrientes.